



Practicum III-ko gida

Haur Hezkuntzako Gradua
Lehen Hezkuntzako Gradua

Dokumentu hau Practicum eta GrAL batzordeak egin du, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Practicum arloko lantalde akademikoak hain zuzen ere.

2020-2021 ikasturte honetan, gida honi beste dokumentu bat erantsiko zaio, **jarduera-protokoloa**, Covid 19a agertokiari buruzkoa.

*"Zailak direlako, ez gara gauza asko egitera ausartzen,
baina zailak dira ez garelako egitera ausartzen"*

Seneka

*"Euskararen alde gauza asko egiteko prest gaude.
Gure esku dago garrantzitsuena: hitz egitea".*

Bernardo Atxaga

AURKIBIDEA

SARRERA	4
1. INFORMAZIOA ETA TESTUINGURUA	5
1.1 <i>Practicum IIIan parte hartzen duten pertsonen eginkizunak</i>	6
1.2 <i>Kontaktua</i>	8
2 PRACTICUM III-AREN PLANGINTZA ETA GARAPENA	8
2.1. <i>Helburu orokorra</i>	8
2.2. <i>Gaitasunak</i>	9
2.2.1 <i>Practicumaren gaitasun orokorrak</i>	9
2.2.2 <i>Practicum IIIaren gaitasun espezifikoak</i>	10
2.3. <i>Practicuma garatzeko faseak</i>	12
2.4. <i>Ikasleek eta tutoreek garatu beharreko zereginak</i>	13
2.4.1. <i>Ikasleek</i>	13
2.4.2 <i>Ikastetxeko tutoreek Practicum III gainbegiratzeko egin beharreko zereginak</i>	15
2.4.3. <i>Unibertsitateko tutoreek Practicum III gainbegiratzeko egin beharreko zereginak</i>	15
2.5. <i>Ebaluazioa</i>	16
2.5.1. <i>Practicum IIIaren kalifikazioa</i>	18
3. BIBLIOGRAFIA	19
ERANSKINAK	24
1. <i>ERANSKINA</i>	26
2. <i>ERANSKINA</i>	28
3. <i>ERANSKINA</i>	29
4. <i>ERANSKINA</i>	261
5. <i>ERANSKINA</i>	295
6. <i>ERANSKINA</i>	3636
7. <i>ERANSKINA</i>	37
8. <i>ERANSKINA</i>	39
9. <i>ERANSKINA</i>	408
11. <i>ERANSKINA</i>	522
12. <i>ERANSKINA</i>	54

SARRERA

Haur eta Lehen Hezkuntza Graduen Practicum III-aren gida hau jardun horretan parte hartuko duten eragileek Practicum IIIari buruzko informazio garrantzitsua biltzen duen dokumentua da.

Practicuma bi araudi nagusitan oinarritzen da: batetik, Eusko Jaurlaritzaren 33/2018 Dekretuan, martxoaren 6koa, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduetakoko ikasleen praktikak arautzen dituen, eta, bestetik, UPV/EHUren Kudeaketa Akademikoaren Araudian, kudeaketa akademikoaren oinarritzko alderdiak zehaztu eta antolatzen dituen artikuluan, hain zuzen. Irakasle titulazioei dagokienez, lankidetzak-hitzarmena egin da Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailaren artean, ikastetxeetan tutore (instrukto) izendatutako irakasleen parte hartzea eta unibertsitateko ikasleak ikastetxeetan egon ahal izatea bermatzeko.

Gradu berriek izaera profesionalizatzailerik aitoritzen diote Practicumari, ikastetxeetan egiten denez, irakasleak bere nortasun profesionala eraikitzeke berebizikoko laguntza eskaintzen duelako. Praktikak ikasgela zehatzetara lotuta daude, eta jardunean ari diren irakasleek tutorizatzen dituzte; horrela, ikasleak ikastetxeko ezagueraz gain, hezkuntza-prozesuko aldagai guztiez ere jabetzen da. Irakasgai honen bidezko ikaskuntzaren kalitatea eta bikaintasuna bermatzeko, gradu berrietan Practicumaren eginkizuna indartu egin da; hala, kreditu-kopurua eta ikastetxeetan emaniko denbora areagotu dira.

Gogoetaren bidez, graduako irakasgaietan barneratutako ezagutza, benetako hezkuntza-egoeran txertatzeko aukerak ematen dizkio Practicumak etorkizuneko irakasleei hasierako trebakuntzan. Ikuspegi horretatik ondorengo printzipioak proposatzen dira Haur eta Lehen Hezkuntzako Irakasle Graduako Practicum III-an:

- 1) IZAERA CURRICULARRA. Practicuma 'Curriculum Practicuma' deritzonaren baliokidea da, hau da, "oinarrizko prestakuntza aberastea" du helburu, ikaskuntza akademikoak (teoriko eta praktikoak) prestakuntza-esperientziarekin, hau da, lan-zentroetan egindako ikaskuntzarekin osatzea" (Zabalza, 2006, p. 5).
- 2) IZAERA PROFESIONALIZATZAILEA. Practicuma funtsezko prestakuntza- eta heltze- prozesua da, Irakasle Graduetakoko ikasle orok profesional on bihurtzeko eskuratu behar dituen gaitasunak garatzeko. Hori dela eta, Graduetakoko bigarren ikasturtetik aurrera, ezagutza akademikoaren eta esperientzia praktikoaren arteko lotura bermatuko da.
- 3) ERREALITATEARI LOTUTA. Practicuma ereduaren behaketen bidez, eskola-testuinguru zehatz batean murgilduta, ikasleak lortu beharreko gaitasunak zalantzan jartzen, hausnarketa medio eta informazio eta baliabide berriak bilatzeko ikaskuntza-prozesua da.
- 4) INTERDEPENDENTZIAN OINARRITUTA. Practicuma partaide guztiak aberasten duen prozesua da: praktikak egiten diren ikastetxetako tutoreak, Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakasleak eta ikasleak, euren motibazio eta erantzunkizuna bermatzen dituen esperientzia da. Aldatuta

- 5) BERRIKUNTZAREKIN KONPROMESUA. Practicumak aldaketarekin eta hezkuntza-berrikuntzarekin konpromesua du. Halaber, Practicumak teknologia berrien erabilera areagotu nahi du, kudeaketaren alorrean halakoak ezarri eta garatzeko.

Practicum III irakasgaiaren ikasketa planean, tutorialak jarraitzeaz gain, helburuak esku-hartze didaktikoak diseinatu, martxan jarri eta ebaluatzea izango dira.

1. INFORMAZIOA ETA TESTUINGURUA

Practicum IIIko gida honen asmoa ikasleak Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduetako Praktika Planean orientatzea da.

Indarrean dauden ikasketa-planetan indartu egin da ikasleen hasierako prestakuntzan praktikek duten garrantzia. Hala, 38 ECTS kreditu esleitu zaizkio: P-Ien 8 kreditu dira Haur Hezkuntzan eta 9 kreditu Lehen Hezkuntzan; P-IIen, 12 kreditu Haur Hezkuntzan eta 11 Lehen Hezkuntzan; eta P-IIIen, 18 kreditu.

Honako printzipio orokor hauek zuzentzen dute Practicuma:

1. ECTS KREDITUAK (European Credit Transfer System)
2. CURRICULUM GAITASUNAK. Gradu eta espezializazio-Minorrek izaera bereziko gaitasun profesional propioak dituzte
3. LANKIDETZA EREDUA. Eredu horrek Unibertsitatearen eta praktikan dauden ikasleak hartzen dituzten ikastetxeen arteko harmonizazioa eta lankidetzaz sendotzen ditu.
4. MUGIKORTASUNA. Ikasleen mugikortasuna bultzatuko da, batez ere Estatuko unibertsitate-sarearen barruan, baina baita atzerriko unibertsitateetan ere (Europar nahiz Europatik kanpo).

Bilboko Hezkuntza Fakultateko Praktiketako Zuzendariordetza eta Idazkaritza dira Practicuma kudeatzeaz arduratzen diren organoak, eta praktika-aldian izaniko edozein gorabehera edo izapide organo horietara bideratu behar dira.

1.1 Practicum IIIan parte hartzen duten pertsonen eginkizunak.

EGINKIZUNAK				
Practicumeko Zuzendariordetza	Praktiketako Batzordea eta Irakasle Taldeak	Unibertsitateko tutorea	Ikastetxeko tutorea	Ikasleak
- Praktiketan lagundu dezaketen ikastetxeei buruzko informazioa jasotzea Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoan. - Graduetako koordinatzaileen jarduerak koordinatzea. - Unibertsitateko tutore bakoitzari orientatu beharko dituen ikasleak esleitzea. - Ikasleak Ikastetxe Laguntzaileetan adskribatzea, bertan praktikak egin ditzaten. - Ikastetxe Laguntzaileetako Zuzendaritzekin harremanetan jartzea, helburuen, jardueren eta ebaluaziorako araudien berri emateko. - Ikasleei on-line bidezko inkesta anonimoa egitea, Praktiken Plan Orokorra ebaluatzeko. Emaitzak otsailean kaleratuko dira,	- Parte hartzen duten irakasleekin batera, prestakuntza etapa antolatzea: (jarduerak eta ordutegia) - Sailei Practicumaren irakaskuntza-zama proposatzea. - Unibertsitateko tutoreen jarduerak koordinatzea. - Practicumaren Gidak egin eta eguneratu. - Practicumaren garapenaren jarraipena egin. - Practicumaren prozesuen ebaluazioa kudeatu. - Zalantzak argitu, eskabideak eta erreklamazioak bideratzea.	- Practicumeko Zuzendariordetzak eta Titulazio Koordinatzaileak deituriko bileretara joatea. - Talde baten ardura hartzea Bilboko Hezkuntza Fakultateko ikasketetako irakasgai ardatza den horren irakaskuntzaz jabetzea. - Praktiketako ikasleen arretarako ordutegia kaleratzea. Ordutegia mintegiekin eta ikasleak dauden ikastetxeetako ordutegiarekin bateragarria izango da. - Praktiketan dauden ikasleekin bilerak antolatzea, ager litezkeen arazoak taldean ebazteko. - Ikasleei Practicumaren programa helaraztea. - Ikasleak orientatzea ikasgeletan jarduteko epe horretan teoria eta praktikaren arteko lotura egin dezaten, ikastetxeko tutorearekin lankidetzaz zorroztzean. - Egindako lana aztertzea: ingurunearen azterketa, zikloaren antolakuntza,	- Ikasturtean zehar ezartzen diren aldietan praktiketako ikasleak hartzea. - Praktiketan dauden ikasleei praktikak egingo dituzten taldearen eta ikastetxearen ezaugarrien nahiz Ikastetxearen Curriculum Proiektuaren berri ematea, eta taldeari nola egokituko zaion azaltzea. - Practicumeko ikasleari ikastetxeko baliabideak eskaintzea, agindu zaizkion prestakuntza-ekintzak burutu ahal izan ditzan. - Practicumean zehar ikasleekin batera aritzea; egin behar dituzten lanetan, beraien autonomia eta ardura bultzatzea. - Bera arduratzen den Practicumeko ikasleak egin behar dituen prestakuntza ekintza orokorrak gainbegiratzea.	- Practicumeko faseak ezagutu eta horietan parte hartzea (informazio-bilerak, aukeraketa, memoria ematea...), eta egoki betetzen laguntzea. - Aurreikusitako mintegietan eta prestakuntza-programan parte hartzea. - Ikastetxera puntualtasunez joateko baldintza betetzea, eta bertako araudia errespetatzea. - Practicumaren programa ezagutzea, eta bera garatzea. - Ikastetxeko tutorearekin eta unibertsitateko tutorearekin lankidetzan aritzea. - Agindutako agiriak zehaztutako epean ematea. - Hezkuntza-komunitateko kide guztiekin harreman adeitsuak izatea.

Practicumeko web orrian.		ikasgelako antolakuntza, eskuhartzeak, etab. - Ikastetxeetako Zuzendari edo Koordinatzaileekin eta ikastetxeetako tutorearekin harremana izatea. - Ikasleei Praktiken Memoria (txostena) prestatzen laguntzea, ezarriko diren jarraibideen arabera. - Practicum-aldia kalifikatzea, hainbat elementu kontuan hartuta: ikasleek egindako lanak txostena, ikastetxeko tutoreak egindako ebaluazioa, eta praktika-aldien jarraipenean egindako behaketak. - Practicuma hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egitea. - Dagokion praktika-zentroa bisitatu.	- Praktiketari dauden ikasleak gainerako irakasleekin batera parte hartzea bultzatzea, eta ahal den neurrian familiekin ere bai. - Practicumaren prestakuntza- prozesua ebaluatzea, eta irakasleari beraren indarguneen eta ahulguneen berri ematea, horiek guztiak hobetu ahal izateko.	- Isilpekotasun eta datu pertsonalen babeserako protokoloa betetzea.
--------------------------	--	---	---	--

1.2 *Kontaktua*

Edozein zalantza izanez gero, hona jo daiteke:

Practicumeko eta GRALeko Dekanordetzari loturiko AZLa (Bulegoa dazkaritzan)

Bilboko Hezkuntza Fakultatea

Tel: 946.01. 46. 31

Sarriena auzoa z/g 48940 Leioa (Bizkaia)

Helbidea: bhf.practicum@ehu.eus

Practicumeko eta GrALeko Dekanordea (OS01B Bulegoa)

Bilboko Hezkuntzako Fakultatea

Tel: 946.01.46.40

Sarriena auzoa z/g 48940 Leioa (Bizkaia)

Helbidea: bhf.practicum.dekanordea@ehu.eus

2 PRACTICUM III-AREN PLANGINTZA ETA GARAPENA

2.1. *Helburu orokorra*

Ikasleak irakasle rolean kokatzea eta aukera ematea errealitatea eta graduetakoa irakasgaietan ikasitakoa kontrastatzea du helburua. Aldi horretan funtsezko garrantzia izango du gelabarruko esku- hartzeak, bertako errealitateak ematen dizkion baldintza guztiekin.

Practicum III honetarako jarduera espezifikoa hau izango da: haur edo lehen hezkuntzako curriculumeko ezagutza arlo bati edo hainbati lotutako esku-hartze didaktikoak programatu, burutu eta ebaluatzea (Ingurumen, gizarte eta kulturaren ezagutza; Heziketa artistikoa; Heziketa fisikoa; gaztelania hizkuntza eta literatura; Euskal hizkuntza eta literatura; Atzerrik eta Matematikak), talde/ikasgelako tutorearekin adostutakoaren arabera, betiere ikastetxeko eta ikasgelako planteamenduekiko koherentea izanik.

Minor profesionalizanteetako ikasleen praktikak, ahal den neurrian, dagokien espezialitatearekin lotura izango dute.

Era berean, ikasleek ikastetxe horretan garatzen ari diren hezkuntza arloko berrikuntza proiekturen batean hartuko dute parte.

2.2. Gaitasunak

2.2.1 Practicumaren gaitasun orokorrak:

1. Ikasgelari eta hura kudeatzeari buruzko ezagutza praktikoa eskuratzea.
2. Ikasgelako interakzio- eta komunikazio-prozesuak ezagutu eta ezartzea, eta ikasgelan ikaskuntza eta bizikidetzaren bultzatuko dituen giroa sustatzeko behar diren gizarte-gaitasun eta -trebetasunak menperatzea.
3. Hezkuntza-prozesua kontrolatu eta beraren jarraipena egitea, eta irakaskuntza-ikaskuntzarena, horretarako behar diren teknika eta estrategiak menderatuz.
4. Teoria eta praktika ikasgelako eta ikastetxeko errealitatearekin lotzea.
5. Irakaskuntza-jardueran parte hartzea egiten ikastea, praktikan oinarriturik, jardunez eta hausnartuz.
6. Ikastetxean ezar litezkeen jarduera-eremuak hobetzeko proposamenak egitea
7. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasle-taldearen interakzio- eta komunikazio- prozesuak arautzea.
8. Hezkuntza-komunitateko eta gizarte-inguruko sektoreekin lankidetzan aritzeko moduak ezagutzea

Practicuma, hiru alditan banatzen da, eta gaitasun orokorra lortzeko, aldi bakoitzean ebaluaketa independenteak adierazten dira.

	Gaitasun Orokorrak	Ikasturtea	HAUR H. Kreditu kop.	LEHEN H. Kreditu kop.
PRACTICUM I	Eskolako errealitatea ezagutzea	2	8 ECTS	9 ECTS
PRACTICUM II	Irakaslearen eginkizuna, ikasgelaren antolaketa eta irakaskuntza ezagutu eta praktikan jartzea	3	12 ECTS	11 ECTS
PRACTICUM III	Aurretik egindako didaktika-proiektuak praktikan jartzea	4	18 ECTS	18 ECTS

2.2.2. Practicum IIIaren gaitasun espezifikoak

PRACTICUM IIIKO GAITASUNAK (HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA)		
Practicum IIIko gaitasunak		Ikaskuntzaren emaitzak
1	Ikasgelako interakzio-eta komunikazio-prozesuak diseinatu eta aplikatzea, eta ikasgelan ikaskuntza eta bizikidetza bultzatuko dituen giroa sustatzeko behar diren gizarte-trebetasunak menperatzea (Lehen Hezkuntzako Graduko T2 eta T7bis zeharkako gaitasunak barne).	- Gai da bere uste propioak defendatzeko, iritzi desberdinak egon daitezkeela baloratuz. - Giza eskubideak identifikatu, praktikatu eta defendatzen dituela erakusten du, bizikidetzarako beharrezko ezagutza eta tresna bezala. - Diziiplina arazoak ebatzi eta gatazkak modu baketsuan konpontzen laguntzen du. - Aniztasun egoeretan ikaskuntzarako eremuak diseinatu eta arautzen ditu, kontuan izanda genero berdintasuna eta giza eskubideekiko errespetua.
2	Ikastetxean ezar litezkeen jarduera eremuak hobetzeko proposamenak egitea. Ikastetxean egiten diren bilera eta ekitaldietan parte hartzen du eta inplikatzeko da	- Hezkuntza komunitateko sektoreekiko lankidetzak esperientziak eta horien eta gizarte-ingurunearen artekoak identifikatzen ditu. - Onartzen du heziketaren funtzioa hobetzen joan behar dela eta bizitzan zehar ematen diren aldaketa zientifiko, pedagogiko eta sozialetara egokitzen. - Ezagutza espezifikoak partekatzen du beste profesional batzuekin, emaitza hobea lortzeko. - Taldean lan egiten du eta arlo bereko ekipoekin edo diziiplina artekoekin, modu eraginkorrean jarduerak garatzeko.

3	Ikuspuntu praktikotik hausnarketa egitea, irakasle lana egiterako orduan gabezia eta indarguneak identifikatzeko asmoz, baita Eskolaren eta hezkuntza sistemaren erronka eta mugak ere. Irakaskuntza-jardueran parte hartzea eta egiten ikastea, praktikan oinarriturik, jardunez eta hausnartuz.	- Esku-hartze didaktikoak diseinatzeko, burutzen eta ebaluatzen badaki, baliabide didaktiko koherenteetatik abiatuta. - Ikasleengan oinarritzko gaitasunak garatzeko gai da, Lehen Hezkuntzako curriculumetik abiatuta. - Dokumentatu egiten da ikasleen beharrian espezifikoei erantzuna emateko. - Kontzeptu teorikoak eta hezkuntza arloko printzipioak erlazionatzen ditu, bai ikasgelako, bai ikastetxeko egoerak interpretatzeko. - Ezagutzen du Lehen Hezkuntzako Eskolen antolakuntza eta beren funtzionamenduaren ekintza-aniztasuna.
4	Hezkuntza komunitateko eta gizarte sektoreekin lankidetzan aritzeko moduak ezagutzea.	- Ikastetxeko eta arloko errealitatea modu kritikoan aztertzen du eta ikuspuntu berritzaile batetik hobekuntzak proposatzen ditu. - Hezkuntza komunitateko eta gizarte inguruneke sektoreekin elkarlanean aritzen da.
5	0-3 eta 3-6 (Haur hezkuntzan) 6-12 urte (Lehen hezkuntzan) bitarteko ikasle taldeetan interakzio eta komunikazio prozesuak arautzea.	- Ikasgela barruko eta kanpoko bizikidetzak sustatzen du. - Ikasgelako interakzioak egoki arautzen ditu.

2.3. Practicuma garatzeko faseak

P-IIIaren helburu orokorra lortzeko, practicum ibilbidea hiru fasetan antolatzen da: **Aurretiko Fasea** (practicumean kokatzeko), **Jarraipen Fasea** (murgilketa eta lanketa fasea) eta **Azken Fasea** (practicumean landutakoa laburbildu, azken hausnarketa burutu eta ondorioak ateratzea)

Aurretiko Fasea

Honako jarduera hauek barne hartzen ditu:

- Talde-laneko hasierako mintegia. Ikastetxera iritsi aurretik, Unibertsitateko tutoreak ikasleekin bilduko dira, Praktiketako Batzordeak ezarritako egutegiaren arabera, Practicum IIIaren Gida zehatz-mehatz aurkezteko helburuarekin.
- Unibertsitateko tutoreak ikastetxeetako tutoreekin harremanetan jarriko dira, honako hauek lotzeko:
 - o Practicum IIIaren berri ematea, eta tutore gisa izango duten eginkizuna azaltzea.
 - o Praktika horien alderdi garrantzitsuenen berri ematea: horien arduradunek urte horretan arreta berezia zertan jarri behar duten azaltzea (esku-hartze didaktikoak eta irakaskuntza berrikuntza proiektuak ezagutu eta horietan parte-hartzea).
 - o Erabiliko diren kalifikazio-irizpideak azaldu eta zehaztea, eta prozesu horretan izango duten eginkizunen berri ematea.
 - o Practicumak dirauen bitartean elkarrekin komunikatzeko bideak zehaztea.

Jarraipen-Fasea

Jarraipen-faseak honako hauek biltzen ditu:

- 10-11 asteko aldian zehar ikasleak ikastetxera joatea.
- Talde-laneko bi mintegi, unibertsitateko tutore bakoitzak ezartzen duen egutegiaren arabera.
- Unibertsitateko tutoreek ikastetxera bisita egitea eta ikastetxeetako tutoreei elkarriketa egitea, haiek Praktiketako Ikastetxeetan dauden bitartean.

Azken Fasea

Honako jarduera hauek barne hartzen ditu:

- Talde-laneko azken mintegia
- Praktiketako txostena entregatzea
- Ikastetxeetako tutoreen ebaluazio-galdetegiak jasotzea.
- Ikasleen Ebaluazioa eta Kalifikazioa egitea

2.4. Ikasleek eta tutoreek garatu beharreko zereginak

LEHEN HEZKUNTZAko ikasle eta tutoreei zuzendutako OHARRA:

Une honetan (2020-2021 ikasturtea), gradu honetako ikasleek egindako ibilbide akademikoaren arabera ondorengo 3 egoera ezberdinetan izango dira praktiketan:

- 1) Lehen Hezkuntzako esparruan praktika generalistak gauzatzea.
- 2) "Musika" edo "Atzerriko Hizkuntza"ko MINORetan izanik praktika generalistak gauzatzea. Kasu hauetan, aurrera eramango dituzten esku-hartzeetariko bat beraien espezialitateko arloan burutu beharko dute.
- 3) "Musika" edo "Atzerriko Hizkuntza"ko MINORetan izanik arlo horien inguruko praktika espezifikoak gauzatzea.

1 eta 2 egoeretan daudenek, ondorengo lerroetan agertzen diren orientabideak jarraitu beharko dituzte.

3 egoeran daudenek, aldiz, MINORaren arabera, 3. eta 4. eranskinetan agertzen direnak jarraitu beharko dituzte.

ARGIBIDEA: ebaluazioari dagokionez, 2.5.1. atalean agertzen diren irizpideak ikasle guztientzako komunak izango dira.

2.4.1. Ikasleek

1) FAKULTATEKO TUTOREAK ANTOLATZEN DITUEN MINTEGIEN PRESTAKETA ETA PARTE HARTZEA

Mintegietara asistentia derrigorrezkoa da eta aurrez aldetik adostutako zereginak prestatuta eramango dira.

Mintegietan burutzen den lan guztia dagokion gogoeta-fitxan erregistratuko da -1. eranskina-.

2) ESKU-HARTZE DIDAKTIKOAK DISEINATU, PRAKTIKAN JARRI ETA EBALUAKETA HOBETZEA

Lehen hezkuntzan, 3 esku-hartze didaktiko landu, burutu eta ebaluatzea proposatzen da gutxienez, eta hauetariko bakoitza guztazko 5 saio abian jarriko beharko dira gutxienez. MUSIKA edo ATZERRIKO HIZKUNTZA MINORRAK egin dituzten ikasleen

Haur hezkuntzan ordea, esku-hartze horiek praktika-aldian zehar banatuko dira, eta guztira hiru asteko esku-hartzea izango da, gutxienez. Adibidez: Ikasgelako plangintzan ezarritako saioetan ipuin bat kontatzea; egun batzuetarako txoko baten ardura hartzea; gai interesgarri baten inguruko proiektu edo tailer bat diseinatzea; hainbat egunez eguneroko errutinetan esku-hartzea; adierazpen artistikoko hainbat saio diseinatu eta praktikan jartzea... (Ikus 2. Eranskina).

Mintegietako saioak esku hartzeen inguruan hausnarketa kontrastatu, akatsak zuzendu eta proposamenak hobetzeko guneak izango dira, unibertsitateko tutorearekin.

Esku-hartze proposamen bakoitza testuinguru baten barruan kokatuta egon behar da eta ondorengo alderdiak kontuan hartu beharko ditu:

- Zertarako? Hau da, zein helburu eta oinarrizko gaitasun landuko diren.

- Zer?: edukiak
- Zer egiten dugun, nola eta noiz: jarduerak, metodologia eta sekuentzia didaktikoa.
- Zein baliabiderekin? Ikasgela, ikasgelatik kanpo, etab.
- Non eta noiz? espazioa-denbora antolaketa.
- Nola ebaluatu?: Ebaluazio irizpideak

3) ZENTROKO IRAKASKUNTZA-BERRIKUNTZAKO PROIEKTUAK EDO ZIKLO ARTEKO PROIEKTUAK EZAGUTU ETA HORIETAN PARTE HARTZEA

Atal hori taldean egin ahal izango dute, ikastetxe berean dauden ikasleen artean. Taldeak burutu beharreko lanak hauek izan daitezke:

- Proiektua ezagutu eta horri buruzko txosten txiki bat egitea.
- Proiektuko jarduera zehatzen batean parte hartzea.
- Gainerako ikas-kideei esperientziaren berri ematea.

4) NORBERE JARDUERA EBALUATU ETA HAUSNARTZEA

Ebaluazio jarduera hauek burutuko ditu:

- a) Praktiketako ikastetxeko tutorearekin esku-hartzeen ebaluazioa gin. Berarekin beteko ditu esku-hartzeen fitxak -2 Eranskina-.
- b) Praktika-aldiko esperientziari buruzko gogoeta egin -6. Eranskina.

5) PRAKTIKEN TXOSTENA EGITEA

Memoriak honako gidoi honi jarraitu beharko dio:

1. Azala (eta honako datu hauek: ikaslearen izen-abizenak eta NANA, maila akademikoa, ikasten duen graduaren izena, espezialitatea, praktikak egin dituen ikastetxea, herria, eta ikastetxeko tutorearen eta unibertsitateko tutorearen izen-abizenak).
2. Aurkibidea.
3. Sarrera (Ikastetxea testuinguruan jarri labur).
4. Practicumaren helburu pertsonal eta akademikoak.
5. Lanaren enborra:
 - Ikas-taldearen testuingurua, ikastetxeak parte hartzen duen metodologiak eta berrikuntza-proiektuak, eta esku-hartze didaktikoen diseinua, implementazioa eta ebaluazioa.
 - Mintegiei buruzko hausnarketa, ebaluazioa eta autoebaluazioa
6. Ondorioak
7. Bibliografia.
8. Eranskinak.

Txostenak gutxi gorabehera 25 orrialdekoa izango da, eranskinak kontuan hartu gabe.

2.4.2 Ikastetxeko tutoreek Practicum III gainbegiratzeko egin beharreko zereginak

- Practicumaren Araudia eta Practicumaren Gida ezagutzea. Bi agiri horiek BHFko Practicum web orrian eskura daitezke.
- Praktika-aldiaren hasieran, ikasleei azaltzea praktikak egingo dituen ikastetxearen eta taldearen edo eskola-unitatearen ezaugarriak, Ikastetxearen Curriculum Proiektua, taldeari edo hezkuntza-unitateari nola egokitzen zaion, eta ikastetxeak ikaslearen esku jarriko dituen baliabideak.
- Ikasleak bere praktika-aldian burutuko dituen jarduerak gainbegiratzeko eta ebaluatzea, uneoro laguntza eskainiz eta beharrezko feed-backa emanez.
- Azken ebaluazioa betetzea -9. eranskina-, ikasleari eskura emango zaiona edo helbide honetara bidaliko dena:

(Unibertsitateko Tutorearen izena)
Bilboko Hezkuntza Fakultatea
Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU)
Sarriena Auzoa, z/g
Leioa 48940 (Bizkaia)

2.4.3. Unibertsitateko tutoreek Practicum III gainbegiratzeko egin beharreko zereginak

- Practicumaren Araudia eta Practicumaren Gida ezagutzea. Bi agiri horiek BHFEko Practicum web orrian eskura daitezke.
- Ikasle bakoitzaren ikastetxeko tutorearekin harremanetan jartzea –aurkezpen-gutuna edo/eta e- posta-, elkar aurkezteko, Gida emateko, praktika-aldiaren helburuak azaltzeko, zer lortu nahi dugun horien bidez, eta ikasleek pasatu beharreko fase eta prozesuak ezagutu ditzaten.
- Esleitutako ikasleekin 4mintegi planifikatu eta talde-lana modu egokian bideratzeko antolatzea. Lehenengoa informazio-mintegia izango da, eskolako egotaldia hasi aurretik, Practicumean burutu beharreko lanen berri emateko. Ondorengo 2 mintegiak ikastetxeko egonaldian zehar egingo dira eta helburua egin behar dituzten lanen inguruko orientazioa, arazoak aztertzea, zailtasunak ebatzea, esperientziak kontrastatzea... izango da. Azken mintegia ikastetxeko egotaldia bukatu ostean izango da, prozesuaren hausnarketa, ebaluazioa eta azken zalantzak argitzeko.

Mintegietan alderdi ezberdinak landu eta aberasgarriak izateko komenigarria izango da hainbat ikuspegi kontuan hartzea :

- Ikasleek egindako jarduera didaktikoak aztertzea eta kideen jarduerekin kontrastatzea. (aukera dago saio batzuk bideoz grabatzeko; material baliagarria izan daiteke). (Kontsultatu 11. Eranskina)
- Ikasleen praktika-ikastetxe ezberdinen erreferentziak aprobetxatuz, errealitate ezberdinak ezagutu eta gonbaratzea: testuinguruak, funtzionamendua, planteamendu didaktikoak, egoerak...
- Mintegian parte hartzen duten ikasleen arteko iritziak eta esperientzien

trukaketak.

- Ikasketa-prozesuari berari buruz hausnartzea.
 - Praktiketako Memoria (txostena) egiteko, ikasleei jarraibideak ematea (7. eranskina).
- d) Praktiketako ikastetxera bisita egitea.
- e) Ikastetxeko tutoren ebaluaketak jaso eta norbe ebaluaketekin bateratu ostean notak grabatu, argitaratu eta ikasleen espedientera pasatzea ezarritako epean.

2.5. Ebaluazioa

Ebaluazioa jarraia izango da praktikaldi osoan zehar eta Hezkuntza fakultateko tutorea zein eskolako tutorearen esku egongo da.

Fakultateko tutoreak ebaluatzerakoan nagusiki kontuan hartuko dituen informazio iturriak mintegiak eta ikaslearen txostena izango dira. Ikastetxeko tutorearen kasuan ikaslearen zuzeneko behaketan oinarrituko da.

Fakultateko tutorea, ikastetxeetako tutoreen ebaluaketak jaso eta bere ebaluaketekin elkartzuz, azken nota zehaztu eta argitaratzearen arduraduna da.

1) Unibertsitateko tutorearen ebaluazioa

Mintegien ebaluazioa

ikasleen parte hartzea eta honen kalitatea kontuan hartuko dira, hala nola, beraien esperientzia eta hausnarketetan oinarritutako ekarpenak, eztabaidetan parte-hartzea, erakusten duten ikaskuntza- eta gogoeta-maila, kideekin lankidetzan jarduteko gaitasuna, adierazitako inplikazio-maila.

Memorien ebaluazioa

Irizpideak:

1. Idatziz eta ahozko komunikazioa menperatzen duela; hau da, ideiak adierazteko argitasuna eta koherentzia, diskurtsoaren egitura orokorra eta antolakuntza, zuzentasun gramatikala, lexikoa espezialitate profesionalera egokitzen ote den, eta zuzentasun ortografikoa.
2. Irakaskuntza-jarduera garatzeko eta bertan esku hartzeko proposatu diren helburuak justifikatzea.
3. Irakaskuntza praktikaren gogoeta-prozesuan eta ondorioetan adierazitako ekina eta sakontasuna.
4. Praktika-aldian egindako lanen ebidentziak edo frogak aukeratzea, antolatzea eta aurkeztea.
5. Egindako ahalegina, eta eskuratutako emaitzak eta ezagutzak komunikazio-konpetentzietan: konpetentzia pedagogiko eta profesionala, konpetentzia didaktiko- diziplinarra, eta kultur-arteakoa.

Gaitasun komunikatiboa zeharkako gaitasuna denez, unibertsitateko tutoreak %10 aitortuko dio konpetentzia honi.

Hizkuntzaren erabilera zuzena ezinbestekoa da. Beraz, **amaierako memoria**

(txostena) ez da gaindituko, ulermen eta adierazpen linguistiko konpetentzia nahikoa ez bada erakusten. Hurrengo aspektuak hartuko dira kontutan:

- koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta zuzentasuna
- diskurtsoaren ulergarritasuna
- hiztegia eta ortografia
- ergatiboa eta komunztadura

Plagioari dagokionez, ezin da beste batek egindako obraren kopia edo imitazioa aurkeztu, norberak egina balitz bezala. Ikasleak zitazio arauak ezagutu eta erabili beharko ditu. Plagioa egin dela susmatzen bada UPV/EHU ko Etika Akademikoari buruzko protokoloa beteko da. (<https://www.ehu.eus/documents/2100129/0/6.-+a%29++Protocolo+plagio++EUSK.pdf/9305b6c7-919a-97d4-aa66-8564fb728502>)

2) Ikastetxeko tutorearen ebaluazioa

Honako alderdi hauek hartuko ditu kontuan:

- Klaseen prestaketa: proposamenen oinarritzea marku teoriko bidez; eduki didaktikoak ordenatzeko gaitasuna; jarduerak planifikatzeko gaitasuna; baliabide egokiak aukeratzeko gaitasuna, eta eskolako bere jardueren programazioarekin erlazionatutako beste aspektu teoriko batzuk.
- Irakasle eginkizunak. Ikaskuntza egoerak sortzeko gaitasuna; ikasgelako materiala eta baliabideak modu egokian erabiltzea; ordena eta arreta mantentzeko gaitasuna; ikasleekin eta ikastetxeko tutorearekin interakzio-maila; gatazka edo ustekabeko egoeren aurrean erreakzionatzeko gaitasuna, eta abar.
- Jarrera eta ezaugarri pertsonal eta profesionalak: norbere praktikaren inguruan hausnartzeko gaitasuna; norbere jardunarekiko gaitasun autokritikoa, esaterako esku-hartzeak ebaluatzerakoan; puntualtasuna eta eskolara joatea; interesa eta motibazioa; ikasteko grina; ikasleekin enpatia izatea; ikastetxeko irakasleari laguntzeko jarrera; etab.

Gida honen eranskinean Praktika-aldia ebaluatzeko orria dago (7. eranskina), Praktiketako ikasleak tutoritzatzen dituen irakaslearen eta unibertsitateko tutorearen artean partekatu beharreko informaziorako oinarria izatea du helburu.

2.5.1. Practicum IIIaren kalifikazioa

Practicum IIIaren kalifikazioan, honako eragile ebaluatzaile, baliabide eta ehunekoak izango dira:

ERAGILE EBALUATZAILEA	EBALUAZIO TRESNAK	EMANDAKO EHUNEKOA **
Unibertsitateko tutorea	Memoria ebaluatzeko errubrika (10. eranskina)	% 70
Ikastetxeko tutorea	Ebaluazio-txostena (9. eranskina)	% 30
		% 100

* Kontuan izan unibertsitateko tutorearen ebaluaketan komunikazio-konpententziak kalifikazioaren % 10-a suposatzez duela.

** Mintegi edo planteia daitezkeen bestelako prestakuntza-jardueretara ez joateak eragin zuzena izango du azken kalifikazioan, huts-egite bakoitzeko puntu bat gutxiago suposatuz.

*** Irakasgaia gainditu ahal izateko ezinbestekoa izango da atal guztiak gainditzea.

Praktiketan **"GUTXIEGI"** kalifikazioa eskuratuko da honako kasu hauetan:

- Praktika-ikastetxera justifikatu gabe bitan joaten ez bada, irakasgaia suspendituta egongo da, eta beraz, praktikak osorik errepikatu beharko dira.
- Ikastetxeko irakasle-tutoreak eman beharreko kalifikazioaren %50 gainditu gabe badago, irakasgaian "gutxiegi" kalifikazioa jasoko da eta, beraz, praktikak berriz ere osorik egin beharko dira.
- Unibertsitateko tutorearen ustez, ikasleak aurretiko prestakuntzan (egongo balitz), edota mintegietan, edota memoria prestatzen maila nahikoa eman ez badu, ez da irakasgaia gaindituko. Ikasleak bigarren deialdian aurkeztu eta beste memoria (txostena) bat egin beharko du. Kasu horretan, irakasgaia gainditzen ez badu, praktikak berriz ere osorik egin beharko ditu.
- Memoria ez bada zehaztutako epean ematen, irakasgaian "gutxiegi" kalifikazioa jasoko da. Ikasleak bigarren deialdian aurkeztu beharko du, eta irakasgaia gainditzen ez badu, praktikak berriz ere osorik egin beharko ditu.

Praktiketan **EZ AURKEZTUA** kalifikazioa eskuratuko da, honako kasu hauetan:

- Irakasgaian matrikulatutako ikaslea Praktiketako Zuzendariordetzarekin edo unibertsitateko tutorearekin harremanetan jartzen ez denean.
- Irakasgaian matrikulatutako ikaslea Praktiketako Zuzendariordetzarekin edo unibertsitateko tutorearekin harremanetan jarri ez baina ikastetxeren batean praktiketan aritu bada, praktika horiek ez dute baliorik izango eta, beraz, lehen nahiz bigarren deialdian "ez aurkeztutzat" agertuko da.

IKASLEEI PRAKTIKA-ALDIKO MEMORIAK BUELTATZEA

Praktiketako lanak eta memoriak eta horiei erantsitako materiala hurrengo ikasturtera arte gordeko ditu irakasleak. Epe hori igarota, itzulketa ez bada eskatu, berziklatu egingo

da.

Memoriak eta lanak osorik edo zati batean argitaratzeko, kopiatzeko, edo beste edozein gauzatarako erabiltzeko, ezinbestekoa izango da egilearen edo egileen berariazko adostasuna (*EHUko kudeaketa-araudia, 49. artikulua*).

3. BIBLIOGRAFIA

WEBGRAFIA OROKORRA

<http://www.berritzeguneak.net/>

<http://www.educaplay.com>

<http://www.euskadi.eus/heziberri/presentacion/web01-a3hbhezi/es/>

<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>

<https://ikasgunea.euskadi.eus/es/web/bizikasi>

<https://www.eleanitz.org/>

BIBLIOGRAFIA OROKORRA

33/2018 DEKRETUA, martxoaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan irakasle izateko gaitzen duten unibertsitate-ikasketen practicumari buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*. Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 23an, zb. 59, 1-14 orr.

Bilboko Hezkuntza Fakultatea. (2018). *Praktikak. Bilboko Hezkuntza Fakultateko araudia*. Bilboko Hezkuntza Fakultatea: Leioa.
https://www.ehu.eus/documents/2955630/8871586/PRAKTIKAK+Araudia_eusk.pdf/83509d08-6758-15fa-159c-5751798a63b7 tik hartuta.

Eusko Jurlaritz. (d.g). *HEZIBERRI 2020. Marco del modelo educativo pedagógico*. Eusko Jurlaritz: Vitoria-Gasteiz.
http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/es_heziberr/adjuntos/Heziberri_2020_c.pdf tik hartuta.

IKASLERIAREN BIBLIOGRAFIA ESPEZIFIKOA

AA. VV. (2013). *Mejora de la práctica docente. Una experiencia de autoevaluación*. Vitoria-Gasteiz: Gasteiz: Departamento de Educación Política Lingüística y Cultura. Gobierno Vasco.

Agelet, J., Albericio, J., Aragües, A., eta beste batzuk. (2001). *Estrategias organizativas en el aula. Propuestas para atender la diversidad*. Barcelona: Graó.

Aretxaga, L. (Koord.). (2013). *Hezkuntza orientabideak. Adimen gaitasun handiko ikasleak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jurlaritz.
http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_escu_inc/adjuntos/16_inklusibitatea_100/100012e_Pub_EJ_altas_capacidades_e.pdf tik hartuta.

Aubert, A., Duque, E., Fisas, M. eta Valls, R. (2004). *Dialogar y transformar. Pedagogía crítica del siglo XXI*. Barcelona: Graó.

- Aubert, A., Flecha, A., García, C., Flecha, R. eta Racionero, S. (2008). **Aprendizaje dialógico en la Sociedad de la Información**. Barcelona: Hipatia Editorial.
- Elboj, C., Puigdemívol, I., Soler, M., eta Valls, R. (2002). **Comunidades de aprendizaje. Transformar la educación**. Barcelona: Graó.
- Escamilla, A. (2009.) **Las competencias en la programación de aula. Infantil y Primaria (3-12 años)**. Barcelona: Graó.
- Eusko Jaurlaritz. (2012). **Orientaciones para la elaboración del plan individual de refuerzo educativo (PIRE) en la educación básica**. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritz. http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_diversid/adjuntos/17_aniztasuna_120/120011c_Pub_EJ_plan_refuerzo_basica_c.pdf tik hartuta.
- Eusko Jaurlaritz. (2019). **II Plan de coeducación para el sistema educativo vasco, en el camino hacia la igualdad y el buen trato (2019-2023)**. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritz. http://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/40_plandep_xileg/es_de_f/Plan%20coeducaci%C3%B3n%20sist.%20educativo.pdf tik hartuta.
- Eusko Jaurlaritz. (2019). **Plan marco para el desarrollo de la Escuela inclusiva**. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritz. http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_escu_inc/adjuntos/16_inklusibitatea_100/Plan_Marco_Escuela_Inclusiva_2019_2022_c.pdf tik hartuta.
- Gardner, H. (2011). **Inteligencias múltiples. La teoría en la práctica**. Barcelona: Paidós.
- Gobierno de Navarra. (1996). **Observación y evaluación. Educación Primaria**. Gobierno de Navarra. Departamento de Educación y Cultura.
- House, S. (Koord.). (2011). **Investigación, innovación y buenas prácticas: teacher development**. Barcelona: GRAO.
- Includ-ed (2011). **Actuaciones de éxito en las escuelas europeas**. Madrid: MEC. <https://sede.educacion.gob.es/publiventa/PdfServlet?pdf=VP14963.pdf&area=E> tik hartuta
- Jaussi, M.L. (Koord.)(2002). **Euskadiko Ikaskuntza Komunitateak**. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Martín, M. P. (2011). **Inteligencias múltiples. Intereses y aficiones**. Madrid: San Pablo.
- Martín, A., eta Rodríguez, S. (2015). Motivación en alumnos de Primaria en aulas con metodología basada en proyectos. *Revista de Estudios e Investigación en Psicología y Educación*, 0(01), 058-062.
- Trujillo, F. (2015). **Aprendizaje Basado en Proyectos. Infantil, Primaria y Secundaria**. Madrid: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.
- Vizcaíno, I. M. (2008). **Guía fácil para programar en Educación infantil (0-6) Trabajar por proyectos**. Madrid: Wolters Kluwer.

ARLOKA:

Heziketa fisikoa.

- Lleixá, T. (2003). **Educación física hoy: Realidad y cambio curricular**. Barcelona: Universidad de Barcelona.

- Mazón, V., Sánchez, M.J., eta Santamarta, E. (2010). *Programación de la educación física basada en competencias. Primaria 4º*. Barcelona: INDE.
- Mazón, V., Sánchez, M.J., eta Santamarta, E. (2010). *Programación de la Educación Física basada en competencias. Primaria 1º*. Barcelona: INDE.
- Mazón, V., Sánchez, M.J., eta Santamarta, E. (2010). *Programación de la educación física basada en competencias. Primaria 5º*. Barcelona: INDE.
- Mazón, V., Sánchez, M.J., eta Santamarta, J. (2010). *Programación de la educación física basada en competencias. Primaria 2º*. Barcelona: INDE.
- Mazón, V., Sánchez, M.J., eta Santamarta, J. (2010). *Programación de la educación física basada en competencias. Primaria 3º*. Barcelona: INDE.
- Mazón, V.; Sánchez, M.J., eta Santamarta, E. (2010). *Programación de la educación física basada en competencias. Primaria 6º*. Barcelona: INDE.
- Puerto, G., eta Martín, J. (2016). La Educación Física como herramienta de inclusión. *Publicaciones Didácticas*, 70(1), 26-33.
- Tinning, R. (1992). *Educación Física: La escuela y sus profesores*. Valencia: Universidad de Valencia.

Musika hezkuntza

- Akoschky, J., Alsina, P., Díaz, M., eta Giráldez, A. (2008). *La música en la escuela infantil (0-6)*. Barcelona: Graó.
- Alsina, P. (1997). *El área de educación musical propuestas para aplicar en el aula*. Barcelona: Graó.
- Revista EUFONÍA. Didáctica de la música. Ed. Graó.
- Riaño, M.E. eta Díaz, M. (Koord.) (2010). *Fundamentos Musicales y Didácticos en Educación Infantil*. Universidad de Cantabria: PubliCan.
- Wills, P., eta Peter, M. (2007). *Música para todos. Desarrollo de la música en el currículo de alumnos con necesidades educativas especiales*. Madrid: Akal.

Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika

- Andricaín, S. eta Rodríguez, A. O. (2016). *Escuela y poesía ¿Y qué hago con el poema?* Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.
- Camps, A. (Koord.) (2003). *Secuencias didácticas para aprender a escribir*. Barcelona: Graó.
- Coelho, E. (2016). *Eskola kulturaztunetan irakastea eta ikastea*. Bilbo: EHUko argitalpen zerbitzua.
- Colomer, T., Manresa, M., Ramada Prieto, L. eta Reyes López, L. (2018). *Narrativas literarias en educación infantil y primaria*. Madrid: Síntesis.
- Córdova, A. (Koord.) (2019). *Renovar el asombro: Un panorama de la poesía infantil y juvenil contemporánea en español*. Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.
- Darling-Hammond, L., Hyler, M.E., eta Gardner, M. (2017). *Effective Teacher Professional Development*. Palo Alto, CA: Learning Policy Institute.
- Darling-Hammond, L. eta Bransford, J. (2007). *Preparing Teachers for a Changing World. What Teachers Should Learn and Be Able to Do*. San Francisco, CA: Jossey-Bass.
- Darling-Hammond, L. (2013). *Powerful Teacher Education: Lessons From Exemplary Programs*. San Francisco, CA: Jossey-Bass.

- Fons, M. eta Palou, J. (Koord.) (2016). *Didáctica de la lengua y la literatura en educación infantil*. Madril: Síntesis.
- Laiz, E. (2008). *Hizkuntza idatzia. Zenbait ideia eskolarako*. Grupo Delta Ediciones Digitales, S.L.
- Lasa, E., Berastegi, M., Antia, M., eta Rodriguez, L. (2010). "Ahozkoa elkarrekintzetan: Gainzuri eskolaren esperientzia". *Hik hasi*, 25. 66-71.
- Martin, R.A. (2009). *Manual de Didáctica de la Lengua y la Literatura*. Madrid: Síntesis.
- Palou J., eta Bosch, C. (Koord.) (2005). *La lengua oral en la escuela. 10 experiencias didácticas*. Barcelona: Graó.
- Palou, J. eta Fons, M. (Koord.) (2016). *Didáctica de la lengua y la literatura en educación primaria*. Madril: Síntesis.
- Prado, J. (2004). *Didáctica de la lengua y la literatura para educar en el siglo XXI*. Madrid: La muralla.
- Sánchez-García, S. eta Yibero, S. (Koord.) (2015). *Las bibliotecas en la formación del hábito lector*. Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.

Atzerriko Hizkuntzaren Didaktika: Ingelera

- Cortina-Pérez, B. eta Andúgar, A. (2018). *Didáctica de la lengua extranjera en Educación Infantil: Inglés*. Madrid: Pirámide.
- Pérez, P., eta Roig, V. (2007). *Enseñar y aprender inglés en educación infantil y primaria (Vol. I y II)*. Barcelona: Horsori.
- Roth, G. (1998). *Teaching Very Young Children. Pre-school and Early Primary*. Ed. Richmond Publishing.
- Ruiz, U. (2000). *Didáctica de la segunda lengua en Educación Infantil y Primaria*. Madrid: Síntesis.
- Slattey, M. eta Willis, J. (2014). *English for Primary Teachers*. Oxford: OUP.
- Verdú, M., eta Coyle, Y. (2002). *La enseñanza de inglés en el aula de primaria: Propuesta para el diseño de unidades didácticas*. Murcia: Universidad de Murcia.
- Vez, J.M., Guillén, C. eta Alario, C. (2002). *Didáctica de la Lengua Extranjera en la Educación Infantil y Primaria*. Madrid: Síntesis.

FAKULTATEKO IRAKASLEENTZAKO BIBLIOGRAFIA ESPEZIFIKOA

- Cid, P. (2012). Concordancia *vs.* discordancia en la evaluación del Practicum protocolos, instrumentos y elementos personales del proceso. *REDU, Revista de Docencia Universitaria*, 10-2, 366-381.
- De Pro, A.J. (2011). El prácticum en el aula de ciencias (Física y Química) orientaciones para el diseño, la experimentación y la evaluación de actividades In Caamaño Ros, A. (Koord). *Investigación, innovación y buenas prácticas* (pp. 205-226). Barcelona: Editorial Graó.
- Gavaldà, A., eta Pons, J.M. (2011). La evaluación en el Prácticum en Educación Infantil con la didáctica de las ciencias sociales como fondo. In Miralles Martínez, P. (Koord.). *La evaluación en el proceso de enseñanza y aprendizaje de las Ciencias Sociales* (pp. 325-332). Murcia: Asociación Universitaria de Profesorado de Didáctica de las Ciencias Sociales.

- Gonzalez, M., eta Fuentes, E. (2011). El practicum en el aprendizaje de la profesión docente. **Revista de Educación**, 354, 47-70.
- Martinez, M., eta Rasposo, M. (2011). Funciones generales de la tutoría en el practicum: entre la realidad y el deseo en el desempeño de la acción tutorial. **Revista de Educación**, 354, 155-181.
- MEC. **Revista de Educación**, Monográfico: la formación práctica de estudiantes universitarios: Repensando el prácticum. nº 354, enero-abril 2011, <http://www.revistaeducacion.educacion.es/re354/re354.pdf> tik hartuta.
- Novella, A. (2011). Prácticas en re-construcción. Tejiendo colectivamente un modelo de prácticas desde la innovación. **REDU**, vol.9, núm. 3, 259-280.
- Pañellas, M., eta Palau Sans, R. (2012). El Practicum en los grados en Educación Infantil y Primaria: una aproximación progresiva a la realidad profesional. **REDU**, 10 (1), 369-338.
- Pérez, S. (2012). Revisión, clasificación y propuestas de mejora del prácticum en educación musical. **Revista de curriculum y formación del profesorado**, 345-359.
- Raposo, A. (2011). Herramientas y recursos para el desarrollo del prácticum. In, Ramirez Fdez, S. (Koord), **El Prácticum en Educación Infantil, Primaria y Máster de Secundaria: tendencias y buenas prácticas**, (pp. 33-50). Granada: Editorial EOS.
- Raposo, M., eta Zabalza, M.A. (2011). La formación práctica de estudiantes universitarios: repensando el prácticum. **Revista de Educación**, 354, 17-30.
- Rodriguez, A. (2002). **Como innovar en el practicum de magisterio: aplicación del portafolios a la enseñanza universitaria**. Oviedo: Septem Ediciones.
- Zabalza, M. (2006). El Practicum y la formación del profesorado: balance y propuesta para las nuevas titulaciones. In, J. M. Escudero (Koord.), **La mejora de la educación y la formación del profesorado. Políticas y prácticas** (pp. 309-330). Barcelona: Octaedro.
- Zabalza, M. (2011). El practicum en la formación universitaria: el estado de la cuestión. **Revista de Educación**, 354, 21-43.

ERANSKINAK

Practicuma garatzeko orientabide moduan, Practicumeko lanak egiteko eredu batzuk erantsi zaizkio agiri honi, Practicumaren lanak burutzeko.

1. eranskina	MINTEGI, JARDUNALDI EDOTA HITZALDIETARAKO GOGOETA FITXA
2. eranskina	IKASGELAKO ESKU-HARTZEEN FITXA
3. eranskina	MUSIKA ESPEZIALITATEA. "MUSIKA" MINORREAN ARITU eta PRAKTIKA ESPEZIFIKOAK egiten dituzten ikasleei zuzenduriko JARRAIBIDE ESPEZIFIKOAK
4. eranskina	ENGLISH AS A FOREIGN LANGUAGE SPECIALIZATION. "ATZERRIKO HIZKUNTZA" MINORREAN ARITU eta PRAKTIKA ESPEZIFIKOAK egiten dituzten ikasleei zuzenduriko JARRAIBIDE ESPEZIFIKOAK
5. eranskina	IKASGELAKO ESKU-HARTZEAK EBALUATZEKO ADIERAZLEAK
6. eranskina	ZENTROKO EDO ZIKLO ARTEKO IRAKASKUNTZA-BERRIKUNTZAKO PROIEKTUAK EZAGUTU ETA HORIETAN PARTE HARTZEKO FITXA.
7. eranskina	AMAIERAKO MEMORIA IDAZTEKO JARRAIBIDEAK
8. eranskina	PRACTICUM III-AREN ONDORIOAK ETA GOGOETA ATALA OSATZEKO GIDA
9. eranskina	IKASTETXEKO TUTOREEK EBALUATZEKO GALDETEGIA
10. eranskina	MEMORIAREN EBALUAZIOAREN ERRUBRIKA UNIBERTSITATEKO TUTOREARENTZAT

11. eranskina	INFORMAZIOA ESKURATU ETA ERABILTZeko ERANTZUKIZUNAK
12. eranskina	PRESTAKUNTZA PROIEKTUA

1. ERANSKINA

MINTEGI, JARDUNALDI EDOTA HITZALDIETARAKO GOGOETA FITXA
DATA:
GAIA: ZER GAI LANDU DUZUE?
ZER EKARPEN EGIN DUZU?
ZER JASO DUZU GAINERAKOENGANDIK?

Mintegirako gida:

Teoria eta praktika lotzea da helburua.

Honako alderdi hauek lagun zaitzakete lana bideratzen:

- Jardunean behar izan dituzun eta gauzatu dituzun esperientziak, trebetasunak eta gaitasunak. Praktika.
- Umeekiko tratuan sortutako zailtasunak.
- Hezkuntza mota bereziak, nabarmentzeko modukoak.
- Curriculum-material berriak.
- Fakultateko ikasketetan eskuratutako ezagutzen eta irakaskuntza lanean duten balioaren arteko harremana.
- Hezkuntza-premia bereziak izanik, laguntza berezia behar duten ikasleen inguruko egoera eta esku- hartzeen tratamenduaren azterketa eta balorazioa.
- Besterik...

Helburua zera da: Bilboko Hezkuntza Fakultatean egindako prestakuntza-saioen ondorioz, ikasleek egindako gogoetak eta oharrak mintegira ekartzea.

Hitzaldi/jardunaldiari buruzko gogoeta-gida:

Behean aurkituko dituzun galderen helburua jasotako hitzaldiari buruz hausnartzen laguntzea da.

Prestakuntza-prozesuan murgildurik gaudenez, nork bere ondorioak atera, bere iritziak azaldu eta zalantzak agertuko ditu.

Galderen helburu bakarra gogoetan laguntzea da eta, beraz, ez zaie modu hertsian erantzun behar. Ez da ezer gertatuko galderaren batek ez badu erantzunik, edo agertzen ez den beste gairen bat ekartzen baduzu. Azkenik, gogoan izan gogoeta hori unibertsitateko tutoreari entregatu beharko diozula.

- 1) *Hitzaldia eman duen pertsonaren izena, eta haren lanaren azalpen txikia: ikastetxea, hezkuntza-maila, ikastetxeko proiektu bereziak...*
- 2) *Zein izan dira ideia nagusiak?*
- 3) *Zer iritzi diozu hitzaldiari? Zer ekarri dizu?*
- 4) *Esan duen gauzaren batekin ez zaude ados?*
- 5) *Komentatu nahi duzun zalantzarik edo galderarik izan duzu?*
- 6) *Ikasi duzun edo ikasten diharduzun irakasgairen batekin loturarik antzeman duzu?*

2. ERANSKINA

Ikasgelako ESKU-HARTZEEN fitxa	
Esku-hartze saioaren izenburua: DATAK: Hasiera: Amaiera: Ikasturtea, Taldea:	
Arloa/eremua:	
Esku-hartzearen azalpena: Prestaketa-aldia: Azaldu nola prestatu duzun saioa edo esku-hartzea; zein zailtasun edo eragozpen izan dituzun helburuak, edukiak, metodologia, jarduerak, ebaluazio-irizpideak, bibliografia eta abar aukeratzeko orduan. Burutze-fasea: Azaldu nola burutu duzun saioa, zertan asmatu duzun, zeintzuk izan diren lorpenak, akatsak, ikasleen erantzuna... osorik eman zen? –Zein ohar eman zizkizun tutoreak? Zer mantenduko zenuke?	
Autoebaluazioa: Egin gogoeta eta nabarmendu aspektu positiboak eta negatiboak. Azaldu emaitza globala, zer mantenduko zenukeen eta zer aldatu hurrengo baterako, aurkitu dituzun zailtasunak, ikasleen jarrera...	
Ikastetxeko tutorearen oniritzia (sinadura). Oniritzia eman ezean azaldu zergatia:	

3. ERANSKINA


MUSIKA ESPEZIALITATEA.

“MUSIKA” MINORREAN ARITU eta PRAKTIKA ESPEZIFIKOAK egiten dituzten ikasleei zuzenduriko JARRAIBIDE ESPEZIFIKOAK

Practicum III- espezifikoa musikan, Lehen Hezkuntzako Musika Minorreko ikasleei zuzenduta dago, beraien MUSIKA IRAKASLE ESPEZIALISTA formakuntza ibilbidea osatzeko.



1. Helburu nagusia



Lehen Hezkuntzako musika irakasgaiaren errealitatea hurbiletik ezagutu eta hezitzaile zereginetan trebatzea.

2. Konpetentziak

- Musika irakasgaiaren **testuingurua** ezagutzea: **curriculum**a, eskolako baldintzak eta klaseko errealitatea egunerokotasunean.
- Musika **klase-ordua** modu egokian **antolatu** (klase-orduaren egituratzea, musika trebetasun eta ezagutza ezberdinak integratzea) eta bideratzeko (giroa, errutinak, klase-dinamika) gaitasuna izatea.
- Musikarako abileziaz gain, **proposamen didaktiko egokiak** planteatu eta trebetasunez dinamizatzeko gai izatea; entzumen eta adierazpen jarduerak zainduz, ikasleen arreta, kontzentrazioa, musikarekin konekzioa, ahalegina, sakontasuna eta sormena ahalbidetzeko.
- Musika irakasleek egunerokotasunean, klase ordu batetik bestera ohikoa duten kurtsoz kurtsoko ibilbidean, talde bakoitzaren **errealitateari egokitze gaitasuna**.

3. Zereginak

1. BEHAKETA

Behaketa praktikaldi osoan zehar burutu beharrekoa bada ere hasierako hilabetean arreta osoa izango du. Musika-heziketa behatzerakoan ondorengo alderdiak kontuan hartuko dira:

1.1. Irakasgaiaren baldintzak

- Musika irakasgaiaren presentzia: asteko klase kopurua eta denbora, bestelako ekimenetan parte hartzea (diziplinartekotasuna, jaialdiak...)
- Musika gelaren ezaugarriak: espazio-baldintzak (akustika, tamaina...), espazio- antolaketa, baliabide materialak...
- Musika irakasleak arloarekin erlazionatuta dauzkan loturak, laguntzak eta babesa: beste musika irakasle batzuekin harremana eta elkar-trukaketak, ikastaroak, elkarte edo proiektuetan parte hartzea, musikari bezala ekimenak...

1.2. Klaseen planteamendua maila bakoitzean

- Lantzen diren gaitasunak eta edukiak. Musikarekin kontaktu zuzena nola bultzatzen den eta zein alderdi lantzen diren (entzunaldia, abestia, dantza, instrumentuak, teknologia, ikuspegi kritikoa...)
- Klase orduaren antolaketa eta bideratzea: egitura orokorra, errutinak, esparru ezberdinen lanketa, lan-dinamikak...
- Erabiltzen diren baliabideak: metodologia, informazio-iturriak, materialak...
- Klaseko giroa eta bizipena, irakasle-ikasleen arteko konekzioa, jarrerak...

1.3. Mailen arteko gonbaraketa

2. ESKU-HARTZEA

Bi esku-hartze diseinatu eta praktikara eraman beharko dira.

Bakoitzaren iraupena hilabete ingurukoa izango da (4-6 saio gutxi gora behera)

3. HAUSNARKETA

Praktikaldian ezagutu eta ikasitako alderdi esanguratsuenak laburbildu eta horien inguruko hausnarketa burutuko da. Bestalde, norbere burua aztertu eta musika irakasle izateko baliabideak eta ahulesiak identifikatzea, etorkizunari begira hobetzeko erronka pertsonalen abiapuntu bezala.

4. Ebaluaketa

Ebaluazioan ondorengo irizpideak kontuan hartuko dira:

- Lehen Hezkuntzako musika arloaren ezagupenean emandako aurrera pausuak.
- Errealitatearen azterketa eta horren inguruko hausnarketaren kalitatea.
- Proposamen didaktikoen errealitateari egokitzea eta kalitatea.
- Musika maisu-maistra izaeraren inguruan burututako hausnarketa: bere sena, funtzioak eta zereginak, zailtasunak eta mugak, formazioa eta trebetasunak...

4. ERANSKINA

ENGLISH AS A FOREIGN LANGUAGE SPECIALIZATION.

"ATZERRIKO HIZKUNTZA" MINORREAN ARITU eta PRAKTIKA ESPEZIFIKOAK egiten dituzten ikasleei zuzenduriko JARRAIBIDE ESPEZIFIKOAK

1. Characteristics of the Practicum

Curricular: it is oriented to enrich students' formation, complementing academic learning (theoretical and practical) with formative experience in the workplace (Zabalza, 2006, p.5)

Professional: it constitutes a formative and maturation process essential for the development of the competencies that all students of the Education Degree must acquire to become a good professional.

Reality-based: it is based on the observation and in the immersion in a specific school context, which questions the competencies that every student must acquire, fosters reflection and promotes the search of new information and resources.

Interdependent: it is a process that enriches every participant involved: the teachers-tutor of the school where the practicum is realized, and the professors and students of the Education Faculty. Each participant assumes the responsibility and motivation necessary to warrant the success of this experience.



**Curricular, Professional,
Reality-based &
Interdependent**

2. General objectives of Practicum III




Place oneself in the **role of foreign language teacher**, compare the information he/she possesses or has learned in the degree with the school's reality.



To **program, teach and evaluate didactic interventions** related to the **Foreign Language** in the Primary Education curriculum, in agreement with the group/class tutor, and in coherence with the School and classroom principles, and to take part in some **project of teaching innovation** carried out in the School (preferably related to the multilingualism, multiculturalism or the foreign language(s) and culture(s)).

3. Competences




- C1.** Acquire practical knowledge of the **foreign language classroom management**.
- C2.** Get to know and apply the **communication-interaction** processes, and master the **social abilities** required to regulate these processes to foster cohabitation (using the English language as vehicular language)
- C3.** To relate theory and practice and to reflect upon the **strengths and weaknesses** of the methodology of the school and participate in improvement proposals, specifically in multilingual contexts (English-Basque-Spanish)
- C4.** Participate in the teaching activity and learn to know how to do, acting and reflecting from practice, with the perspective of **innovating and improving teaching** work.
- C5.** Plan, tutor and monitor the educational process and, in particular, the teaching and learning of a foreign language, and the subjects taught through this as a vehicular language through mastery of the techniques and strategies necessary **attending to the diversity** of the students.
- C6.** Acquire habits and skills for **autonomous and cooperative learning** and promote these among students.
- C7.** Acquire knowledge of the language project of the school, reflect and suggest or participate in improvement proposals from the point of view of **plurilingualism and cultural diversity**.
- C8.** Be able to collaborate with the different sectors of the **educational and the social community**.

Assignments

During the internship, the students must:

- **Observe and reflect** upon the teaching-learning process, using the guidelines in Appendix 1.
- **Plan, design, implement and evaluate**, in accordance with the school tutor, different didactic interventions (series of activities or a complete didactic sequence), and must reflect after each session upon his/her intervention (min. **2 interventions**, altogether **6-10 sessions** approx.).
- **Gain knowledge of an innovation project** (preferably related to plurilingualism), **collaborate on an activity** of the project and **prepare a presentation** (this whole assignment can be developed **in teams** of Practicum students in the same School).
- **Participate in the evaluation activities**: evaluate the interventions together with the tutor from the school and reflect about the internship experience.
- **Elaborate a report** that synthesizes the description and analysis of his/her internship (implementation-project-evaluation) and his/her critical reflections.



- ✓ Observe and reflect
- ✓ 2 interventions (6-10 sessions)
- ✓ Activity presentation
Innovation project
- ✓ Final report

4. Evaluation

The final qualification of the Practicum subject is the result of the qualification of the final report (70%) by the tutoring professor of the Education Faculty, and the school tutor's evaluation of the internship practice (30%).

Specific evaluation criteria:

- The student shows **ability for critical reflection** and makes **adequate contributions** in relation to his/her **observation** of the teacher, lessons and classroom management, both in the seminars and in the report. He/she is able to identify the main weakness and strengths and make sound improvement suggestions.
- The student's **didactic interventions** are **coherent with the actual context** (characteristics of the group, attention to diversity), the **curriculum**, the **theoretical and practical contents** developed during the Minor and/or other relevant **academic sources**.
- He/she provides adequate support for his didactic decisions and conclusions adding the corresponding references.

- The student carries out **innovating and improving teaching work**.
- The student shows him/herself ability for **autonomous and cooperative learning** and fosters it among his/her pupils.
- He/She makes interesting contributions to the **school innovation project**, from the point of view of **plurilingualism and cultural diversity**.
- He/she **collaborates** with other students and with the different participants of the **educational and social community**.
- The S shows **adequate oral and written communicative competence** through the different phases of the practicum (B.2.2.-C1 level).

5. ERANSKINA

IKASGELAKO ESKU-HARTZEAK EBALUATZEKO ADIERAZLEAK	
ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Gaia, jarduera eta abar aurkeztu eta azaltzea	Edukiak, jarduerak eta abar modu logiko eta ordenatuan azaltzen ditu.
Azalpenen kalitatea	Elementu egoki eta sortzaileak erabiltzen ditu arreta bereganatu eta ikasleek gauzak ondo ulertzeko.
Hizkuntzaren erabilpena	Lengoaia eta estilo egokia erabiltzen ditu, ikasturtea eta ikasleen maila kontuan izanda. Edukiak azaltzeko modua eta erabilitako hiztegia argia eta zehatza da.
Komunikazio eta interakzio trebetasunak	Mezuak indartu eta ikasleen arreta mantentze alortzen du, teknika hauek modu eraginkorrean erabiliz: Bolumen egokia erabiltzen du, tonua modulatzeko, hitzak keinuen bidez indartzen ditu, ikasleak bere izenez deitzen ditu, aurpegira begiratzen du, eta abar. Banakako autonomia eta ikasleen taldeko lana sustatzen ditu: Horretarako egokiak diran galdera eta jarduerak planteatuz.
Ikasleen galderei erantzutea	Badaki entzuten eta interesa adierazten du egiten diren galdera eta komentarioekiko; galderei logikaz, segurtasunez eta zuzentasunez erantzuten die.

6. ERANSKINA

ZENTROKO IRAKASKUNTZA-BERRIKUNTZA PROIEKTUAK EDO ZIKLO ARTEKO PROIEKTUAK EZAGUTU ETA HORIETAN PARTE HARTZEKO FITXA

PROIEKTUA:

PROIEKTUAREN AZALPENA:

ZER EKARPEN EGIN DUZU?

ZEIN GAI NABARMENDU NAHIKO ZENUKE GAINERAKO KIDEEKIN?

7. ERANSKINA

AMAIERAKO MEMORIA IDAZTEKO JARRAIBIDEAK

Practicum IIIaren Memoriak ikaslea praktiketako ikastetxean egon den bitartean egindako prestakuntza-prozesua jasotzen du, eta epealdi horretan egindako behaketaren eta gogoetaren emaitza izan behar du. Praktika-aldian antzemandako gaitasunak, zailtasunak eta mugak ikasteko modu hausnartzaile, autonomo eta auto-konszienteari erantzuten dio, eta prestakuntzari loturiko etengabeko ebaluazioa egiteko baliabide egokia da. Practicumean irakasten ikasteko izan duten prozesuaren "historia" adierazten duten materialak batu eta aztertzen dituzte ikasleek memorian, modu esanguratsuan eta egituratuan (Rodríguez Marcos et al. 2002, 35. or.). Datuen hautaketa aproposa, sistematikoa eta kronologikoa da. Kontaketa hausnartuaren bidez, praktika-aldian garatu duten jarduera eraiki eta ulertzen lagunduko du: estrategiak, ahaleginak, aurrerapausoak, zailtasunak eta azken emaitzak.

Memoriak honako gidoi honi jarraitu beharko dio:

1. Azala (eta honako datu hauek: ikaslearen izen-abizenak eta NANA, maila akademikoa, ikasten duen graduaren izena, espezialitatea, praktikak egin dituen ikastetxea, herria, eta ikastetxeko tutorearen eta unibertsitateko irakasle-tutorearen izen-abizenak).
2. Aurkibidea.
3. Sarrera (Ikastetxea testuinguruan jarri labur).
4. Practicumaren helburu pertsonal eta akademikoa.
5. Lanaren enborra:
 - Talde-klasearen testuingurua, ikastetxeak parte hartzen duen metodologiak eta berrikuntza-proiektuak, eta esku-hartze didaktikoen diseinua, implementazioa eta ebaluazioa.
 - Mintegiei buruzko hausnarketa, ebaluazioa eta autoebaluazioa
6. Ondorioak
7. Bibliografia. (Memoria osatzeko erabili diren iturriak -liburuak, aldizkariak, agiri ofizialak, etab.-) egoki aipatu behar da. (Kontsultatu Bibliografia prestatzeko arauak).
8. Eranskinak

Sarrerari dagokionez, haren helburu nagusia praktikak egin diren esparrua ezartzea da, horrela irakurlea kokatu egingo delako eta agiria errazago irakurriko duelako. Ez dago sarrera egitearen inguruko araudirik, baina alderdi hauek har daitezke kontuan:

- Praktikak irakasleak prestatzeko curriculumarekin lotzea.
- Praktikak indarrean dagoen legeriarekin lotzea.
- Agiriko edukiak eta atalak aurkeztea.
- Erreferentziako bibliografia edo agiriak baloratzea.
- Ondorio garrantzitsuren bat aurreratzea.

Lanaren enborrak Practicumaren elementu nagusiak bildu behar ditu: a) testuinguruan jartzea; b) esku-hartze didaktikoak eta c) zentroko edo ziklo arteko irakaskuntza-berrikuntzako proiektuetan parte hartzea.

Ondorioetan, ikasleak honako bi galdera hauei erantzun behar die: Zer ikasi dut eskolako eta ikasgelako errealitateari buruz, beraren gizarte- eta hezkuntza-testuinguruan kokatuta? Zer ekarri dit Practicumean egindakoak nire etorkizun profesionalari begira?

BIBLIOGRAFIA PRESTATZEKO ARAUAK

APA arauak erabiliko dira, 6. bertsioa:

- Liburu baten erregistroa:

Egilearen abizenak, izenaren lehen hizkia. (Argitaratu den urtea). **Lanaren titulua**. Hiria: Argitaletxea. Adibidez:

Ruiz Bikandi, U. (2012). **Lengua castellana y Literatura. Investigación, innovación y buenas prácticas**. Bartzelona: GRAO.

- Aldizkari bateko artikuluko baten erregistroa:

Egilearen abizenak, izenaren lehen hizkia. (Argitaratu den urtea). Artikuluaren izenburua. **Aldizkariaren izena, bolumenaren zenbakia (alearen zenbakia), orriaren/orrien zenbakia**. Adibidez:

González, J.F. (2004). La participación educativa en educación primaria analizada por expertos en educación. **Revista de Ciencias de la Educación**, 200, 453-476.

- Liburu bateko kapituluaren erregistroa:

Kapituluaren egilearen abizenak, izenaren lehen hizkia. (Argitaratu den urtea). Kapituluaren izenburua. Izenaren lehen hizkia. Liburuaren egilearen izenak. **Liburuaren izenburua (orriak)**. Hiria: Argitaletxea. Adibidez:

Carda, R.M. y Larrosa, F. (2004). El maestro como tutor. **La organización del centro educativo. Manual para maestros (259-277 or.)**. Alacant: Club Universitario argitaletxea.

- Argitalpen digital baten erregistroa:

Erregistro modu egokia erabili (liburua, aldizkaria), noiz kontsultatu den erantsita: URL [Kontsulta: 18/12/2012]. Adibidez:

Fernández, R.A. (Koord.) (2008). **Medidas de atención a la diversidad**. Oviedo: Dirección General de Políticas Educativas y Ordenación Académica. Servicio de Alumnado, Participación y Orientación Educativa. http://www.educastur.es/media/publicaciones/apoyo/orientacion/medidas_atencion_diversidad.pdf [Kontsulta: 25/02/2012]

González, F. (2005). Competencias desde la perspectiva intercultural para el grado de educación primaria. **Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado**, 8 (1). http://aufop.com/aufop/uploaded_files/articulos/1228488292.pdf [Kontsulta: 27/03/2012]

8. ERANSKINA

PRACTICUM III-AREN ONDORIO ETA GOGOETA ATALA OSATZEKO GIDA

A: amaierako GOGOETA PERTSONALA

Egin duzun lanaz hausnartzen laguntzeko elementu bat eskaintzea da gida honen helburua. Horretarako, Practicum IIIaren garapenean oinarritzat jotzen ditugun gai batzuk azpimarratzen dira. Aldi berean, zure erantzunei esker, zeure lanaz egin duzun balorazioa eta unibertsitateko tutoreak egin duen balorazioa kontrastatzeko aukera dago.

A.1. Ikastetxea eta ikasgela

1. Ikastetxeari buruzko ideia aldatu duzu? Zertan?
2. Zure iritziz, zer jarduera landu dira gehien edo zein gustatu zaizkizu gehien? Zergatik? Egin zerrenda ordenatua, ahal duzun neurrian.
3. Azaldu ikastetxean bizi izan dituzun hiru esperientzia positiboenak.
4. Azaldu hiru esperientzia negatiboenak.

A.2. Unibertsitatean egindako jarduerak

1. Zertarako balio izan dizu ikastetxera joan aurretik jasotako prestakuntzak?
2. Nola hobe genezake hasierako prestakuntza?
3. Zertarako balio izan dizute unibertsitatean egindako mintegiek?
4. Nola hobe genezake mintegietako lana?

A.3. Baloratu praktika-aldian izandako esperientzia

1. Oro har, zein jarrera izan duzu praktika-aldian? (aktiboa, parte hartzekoa).
2. Zer helburu bete dira? Aldera itzazu hasieran zehaztutako helburuekin.
3. Azaldu zer zailtasun, ustekabe, muga... sentitu duzun irakasle ona izateko.
4. Zer egin dezakezu aurrerantzean zeure prestakuntza hobetzeko?
5. Zer iritzi diozu lanbide horri?
6. Zer gehiago esan nahi duzu?

9. ERANSKINA**IKASTETXEKO TUTOREEK EBALUATZEKO GALDETEGIA****2020/2021**

BILBOKO
HEZKUNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
DE BILBAO

IKASTETXEAREN IZENA

IKASLEA

IKASTETXEKO TUTOREA

**HAUR HEZKUNTZA – LEHEN HEZKUNTZA TITULAZIOETAKO PIII.ko IKASLEEK
PRAKTIKETAKO ZENTRUETAN EGIN DUTEN LANA EBALUATZEKO LAN-TRESNA**

Ebaluaketa errazteko asmotan, hemen aurkezten dizkizugun alderdi hauek kontuan hartzeko proposamena egiten dizuegu.

Errubrika moduko tresna da, hau da, item bakoitzean ikaslea non kokatu den adierazi beharko duzu, batzuetan adierazten denaren adibide bat edo gehiago ematea garrantzizkoa izan daitekeela ulertuz horretarako espazioa ere ematen dizugu. Agertzen ez diren eta zuretzat interesgarriak diren hainbat alderdi gehitzeko ere aukera duzu.

Bukaeran 1etik 10era doan zenbakizko kalifikazioa ematea ezinbestekoa da.

Mesedez!, praktikaldia bukatu eta aste betera (berandu lez) Fakultateko tutoreari helarazi.

Mila esker! zure kolaborazioagatik.

KONTZEPTUA	BALORAZIOA ETA EBIDENTZIAK		
<u>A) ARAUDIA eta FUNTZIONAMENDUA</u>			
1. Puntualtasuna	Orokorrean erakundera berandu heldu da	Batzuetan erakundera berandu heldu da	Beti puntualtasunez heldu da
Adibidea			
2. Ikastetxeko arauetara egokitzea	Ez da erraz egokitu erakundeko arauetara	Orokorrean erakundeko arauetara egokitu da	Oso ongi egokitu da
Adibidea			
<u>B) BALIO PERTSONALAK</u>			
3. Lanerako prestasuna eta jarrera	Lanerako jarrera pasiboa azaldu du	Lanerako prest egon da	Jarrera proaktiboa eta ekimena adierazi ditu
Adibidea			
4. Autokritika	Orokorrean ez du jarrera autokritikoa erakutsi. Ez du iradokizunik onartu	Batzuetan jarrera autokritikoa erakutsi du. Iradokizunak onartu ditu	Orokorrean jarrera autokritikoa izan du
Adibidea			

5. Beste irakasleekiko harremanak	Ez da erraz erlazionatu	Ongi erlazionatu da	Komunikatzeko eta erlazionatzeko gaitasun handia adierazi du
Adibidea			
6. Ikasleekiko harremana Entzumena/Sentimena	Ez da erraz erlazionatu	Ongi erlazionatu da	Komunikatzeko eta erlazionatzeko gaitasun handia adierazi du
Adibidea			
7. Harremanak ikas komunitatearen beste eragile guztiekin	Ez da erraz komunikatu	Ongi harremandu da	Komunikatzeko eta harremantzeko gaitasun handia adierazi du
Adibidea			
8. Gizarte eta kultura aniztasunarekiko egokitasuna	Ez da erraz moldatu	Ongi moldatu da	Oso ongi moldatu da. Sentsibiltate handiko pertsona da
Adibidea			
9. Ikasleekiko errespetuzko trataera (zaindu beharreko "marra gorriak")	Ez du neurtu ikasleekin komunikatzeko era (konfiantza lar edo distantzia gehiegi)	Ongi moldatu da	Oso ongi moldatu da
Adibidea			

C) HEZKUNTZA JARDUKETA				
Gaitasun komunikatiboa				
10. Ikasleekin (taldeka zein indibidualki) komunikatzeko gaitasuna	Ez du bere hizkera ikasleen mailara egokitu	Ongi moldatu da.	Oso ongi moldatu da	
Adibidea				
11. Ikasleen behar indibidualak hautemateko gaitasuna	Ez ditu ikasleen behar indibidualak kontuan hartu	Ongi moldatu da.	Ikasleen behar indibidualak hautemateko gaitasun handia erakutsi du	
Adibidea				
12. Hitzik gabeko komunikazioa	Hitzik gabeko komunikazioa ez du zaindu	Ongi moldatu da	Hitzik gabeko komunikazioan trebetasun handia erakutsi du	
Adibidea				
Hizkuntzaren erabilpena				
13. Ideien adierazpen argi eta ulergarria	Maiz diskurtsoa-mintzaldia ez du ondo egituratu. Ideiak nahastu egin ditu. Urduritasunez eta eten ugarirekin mintzatu da. Ez du erregistroa komunikazio egoerara egokitu...	Diskurtsoa egoki egituratu du. Ideiak argi eta hurrenkera egokian azaldu ditu. Lasai eta zuzen hitz egin du. Formaltasun gradu egokia agertu du ...	Diskurtsoa bikain antolatu eta egituratu du. Azaldu dituen egitasmoak eta ideiak ondo oinarritu ditu. Segurtasunez, zuzentasunez eta era natural batean mintzatu da. Erregistroa beti komunikazio egoerara egokitu da...	
Adibidea				
14. Gramatikalki zuzenak diren	Idatzizko testuen egiturazko arazo larriak azaldu ditu: ideia ulergaitzak edo/eta	Orokorrean idatzi dituen testuek egitura zuzena izan dute. Ideiak argiak izan dira eta egoki	Testuak oso ongi ordenatuta eta egituratuta izan dira. Gaiak oso modu egokian aurkeztu	

idatzizko eraikuntza	testuen	kontraesankorrak . Akats ortografiko eta gramatikal ugari agertu ditu.. Adierazpen maila ez-egokia: lexiko pobrea edo ez-egokia, termino espezifikoei arazoak... Erregistro arazoak...	antolatuta izan dira Akats ortografiko eta gramatikal bakar batzuk agertu ditu Adierazpen maila egokia agertu du: lexiko zuzena erabiliz, agian termino espezifikoko batzuen erabilpenean kale egin du...	ditu, koherentziaz eta sakontasunez. Adierazpen maila egokia: Lexiko egokia, termino espezifikokoak zuzen erabili ditu. Erregistro zuzena...
Adibidea				
Jakite-maila eta azalpenen egokitasuna				
15. Eduki edo ezagueraren jakite-maila	Orokorrean edukien inguruan ezjakintasuna adierazi du	Ongi moldatu da	Edukiak menperatzen zituela agerikoa da	
Adibidea				
16. Azalpenen egokitasuna	Edukiak azaltzeko zailtasunak izan ditu	Ongi moldatu da	Edukiak azaltzeko erraztasun handia erakutsi du	
Adibidea				
17. Ezezagunak diren alderdien aurreko jarrera	Ezagutzen ez zituen aldean aurrean jarrera pasiboa izaten zuen, ez du ikasteko iniziatiba erakutsi	Ezagutzen ez zituen aldean aurrean jarrera aktiboa izan du, batzuetan ikasteko iniziatiba erakutsiz ...	Ezagutzen ez zituen aldean aurrean beti jarrera proaktiboa izan du, ikasteko iniziatiba agerikoa izan da beti	
Adibidea				
18. Motibatze gaitasuna	Umeak motibatze gaitasunak agertu ditu	Orokorrean umeak motibatze gai izan da	Umeak motibatze gaitasun handia erakutsi du	
Adibidea				

Sormena			
19. Jarrera sortzailea	Ez du sormenezko jarduerarik proposatu	Sormenezko jarduerak batzuetan proposatzen ditu	Sormenazko jarduerak etengabe proposatu ditu
Adibidea			
Gatazkak kudeatzeko gaitasuna			
20. Gatazkak kudeatzeko trebetasuna	Oso gutxitan ahalegindu da gatazkak kudeatzen. Ez du trebetasunik erakutsi	Batzuetan gatazkak kudeatzeko baliabideak proposatu ditu	Gatazkak kudeatzeko trebetasun handia agertu du
Adibidea			

KONTZEPTUA	BALORAZIOA ETA EBIDENTZIAK		
21. Tutorearen gomendioei kasu egitea (jarduerak planifikatzerakoan...)	Orokorrean ez die kasu handirik egin	Batzuetan kontuan izan ditu	Kontuan izan ditu beti
Adibidea			
22. Tutorearekin hezkuntza jarduerak aztertzea/ kontrastatzea	Orokorrean ez du bete	Orokorrean bete izan du	Beti egin du kontraste hau
Adibidea			
23. Prestatutako eskuhartzeen egokitasuna	Arazoak agertu ditu eskuhartze egokiak eta arrazoizkoak aurkezteko	Orokorrean eskuhartze egokiak eta arrazoizkoak proposatu ditu	Prestatu dituen eskuhartzeak egokiak eta arrazoizkoak izan dira beti
Adibidea			
24. Lidergoa, edukietan eta ezaguera didaktikoetan oinarrituta	Gutxitan erakutsi du lidergoa	Batzuetan erakutsi du	Beti erakutsi du
Adibidea			

BESTERIK GEHITZEKO?



AZKEN KALIFIKAZIOA:



Sinatua: Tutoreak

Koordinatzailearen oniritziarekin

Ikastetxeko zigiluarekin

10. ERANSKINA

ERRUBRIKA UNIBERTSITATEKO TUTOREAK MEMORIA EBALUA DEZAN

Ondoren, ikaslearen Praktika-aldiko Memoria ebaluatzeko errubrika bat proposatzen dugu. Horren bidez, ebaluatzailearen subjektibotasuna orekatu nahi da, tutoreak eta ikasleak jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpide garden eta partekatuak izan ditzaten. Baliabide honek lau ardatz ditu: aurkezpena, estiloa-egitura, hausnarketa eta beste balorazio batzuk.

Azken kalifikazioa ezartzean, honako bihurketa-taula hau har daiteke kontuan:

Memoriaren erreferentziako puntuazioa	Balorazio kuantitatiboa	Balorazio kualitatiboa
3 – 4	9 – 10	Bikain
2 – 2,9	7 – 8,9	Oso ongi
1 – 1,9	5 – 6,9	Nahiko
0 – 1	0 – 4,9	Gutxiegia

1.AURKEZPENA			
4	3	2	1
Eskatu zaizkion irizpide formalei egokitu zaio (ikusi 5. eranskina)	Eskatu zaizkion irizpide formalei egokitu zaio, baina ezarritakoaren % 25 falta zaio.	Eskatu zaizkion irizpide formalei egokitu zaio, baina ezarritakoaren %50 falta zaio.	Ez zaio inolaz ere egokitu eskaturiko irizpide formalei.

2. ESTILOA ETA EGITURA (amaiera taula bat erantsi da, puntu hau hobeto baloratzeko)***			
4	3	2	1
Memorian ez du idazketako hutsegiterik edo hutsegite gramatikal edo sintaktikorik egin.	Oso hutsegite gutxi egin ditu idazketan, gramatikan edo syntaxian, eta atal batzuetan baino ez dira izan.	Idazketan, gramatikan eta syntaxian hutsegite asko egin ditu, atalik gehienetan.	Idazketan, gramatikan eta syntaxian hutsegite gehiegi egin ditu, atal guztietan.
Bikain azaltzen ditu ideiak, gogoetak eta iritzi pertsonalak.	Oso ondo azaltzen ditu ideiak, gogoetak eta iritzi pertsonalak.	Ez ditu ondo azaltzen ideiak, gogoetak eta iritzi pertsonalak.	Ez ditu batere ondo azaltzen ideiak, gogoetak eta iritzi pertsonalak.
Jardun akademiko, profesional edo pertsonalari loturiko ebidentzia asko jaso ditu.	Jardun akademiko, profesional edo pertsonalari loturiko ebidentzia dezente jaso ditu.	Jardun akademiko, profesional edo pertsonalari loturiko ebidentzia batzuk baino ez ditu jaso.	Ez du jaso jardun akademiko, profesional edo pertsonalari loturiko ebidentziarik batere.

3. HAUSNARKETA			
4	3	2	1
Txostenean jartzeko proposatu diren praktika-aldiko elementu guztiak identifikatu, behatu eta komentatu ditu; elementu horien eta irakasgai teorikoetan edo praktika-aldian informazio-iturriak ikertuz eta kontsultatuz ikasitakoaren artean dauden erlazioak ezarri ditu.	Txostenean jartzeko proposatu diren praktika-aldiko elementuak identifikatu, behatu eta komentatu ditu, baina ezarritakoaren %25 falta da. Elementu horien eta irakasgai teorikoetan edo praktika-aldian informazio-iturriak ikertuz eta kontsultatuz ikasitakoaren artean dauden erlazioak ezarri ditu.	Txostenean jartzeko proposatu diren praktika-aldiko elementuak identifikatu, behatu eta komentatu ditu, baina ezarritakoaren %50 falta da. Elementu horien eta irakasgai teorikoetan edo praktika-aldian informazio-iturriak ikertuz eta kontsultatuz ikasitakoaren artean dauden erlazio gutxi ezarri ditu.	Txostenean jartzeko proposatu diren praktika-aldiko elementu oso gutxi (edo bat ere ez) identifikatu, behatu eta komentatu ditu. Ildo beretik, ez du erlazioirik ezarri elementu horien eta irakasgai teorikoetan edo praktika-aldian informazio-iturriak ikertuz eta kontsultatuz ikasitakoaren artean.
Prestakuntza-saioei eta taldeko	Prestakuntza-saioei eta taldeko	Prestakuntza-saioei eta taldeko	Ez du taldekako edo banakako

nahiz banakako mintegiei buruzko ekarpen asko eta sakonak egin ditu, eta praktika-aldiko gogoeta aberastu du horri esker.	nahiz banakako mintegiei buruzko ekarpenak egin ditu, nahiz eta kalitate eta sakontasun handikoak izan ez. Praktika-aldiko gogoeta aberastu du horri esker.	nahiz banakako mintegiei buruzko ekarpen gutxi egin ditu, eta kalitate eta sakontasun gutxikoak dira.	mintegiei buruzko inolako ekarpenik egiten.
Praktikek ikaskuntza akademikoari eta garapen pertsonalari begira duten garrantzia baloratu du. Bere indarguneak eta ahulguneak identifikatu eta hobetu beharreko alderdiak nabarmendu ditu.	Praktikak baloratu ditu baina ez du erreferentziarik zehaztu bere ikaskuntza akademikoan eta garapen pertsonalean ekarri dionaren inguruan. Indargune, ahulgune eta hobetu beharreko alderdi batzuk identifikatu ditu.	Oso azalean baloratu ditu praktikak, indarguneak, ahulguneak eta hobetu beharreko alderdiak identifikatu gabe.	Ez du praktikei buruzko inolako baloraziorik egin, eta ez du identifikatu bere indargunerik, ahulgunerik edo hobetu beharreko alderdirik.

***Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoak idatzizko testua ebaluatzeko aurkezten dituen elementuak	
Egokitasuna	Gaiari heldu dio. Azaldu eta argudiatu egin du, ez da mugatu adibideak eta gertakizunak ematera. Testu mota egokia da. Testuaren hartzailea, testuaren helburua, testuingurua... kontuan hartu ditu, eta horiei guztiei egokitutako erregistro erabili du.
Koherentzia	Ideiak argi eta zehatz azaldu ditu, egoki antolatuta. Testuaren egitura egokia da. Informazioa era progresiboan azaldu du.
Kohesioa	Ideiak eta esaldiak txukun eta egoki azalduta daude; horretarako, testua bateratzeko kohesio-elementuak egoki erabili ditu. Puntuazioa egokia eta zuzena da. Testua erraz irakurtzen da.
Aberastasuna	Hiztegi egokia erabiltzen du. Ideiak egoki eta zehatz adierazi eta, egitura konplexuak ere egoki erabili ditu.
Zuzentasuna	Ortografia zuzena erabili du. Ez dago behin eta berriro errepikatzen den hutsegiterik. Oso hutsegite gutxi egin ditu, eta ez dute inolaz oztopatzen testua ulertzea.

11. ERANSKINA

INFORMAZIOA ESKURATU ETA ERABILTZEKO ERANTZUKIZUNAK

Datu pertsonalak erabiltzea

Memoria erabiltzeko unean ez da erabili behar pertsonak, ikasleak, irakasleak edo beste profesional edo senideak identifikatzeko aukera emango duten datu pertsonalik (izenak, helbideak, etab.). Horregatik, esperientziak eta gogoetak errazago idazteko, asmatutako izenak edo izenaren hasierako hizkia erabiliko dira.

Grabazioak, argazkiak eta fitxategiak zabaltzea

Ikastetxeko egonaldian eskola-jarduerak grabatzea, ikasle, irakasle edo senideei argazkiak egitea eta ondoren idatziz edo era digitalean argitaratzea (Internet, argitalpen elektronikoak edo idatzizkoak, Practicumaren memoria, etab.) oso kontu handiz erabiltzeko gaia da, eta indarrean dagoen legeria ezagutu eta errespetatu behar da.

Halakorik (grabatu, argazkiak egin, argitaratu, etab.) egin aurretik, praktika-aldiko tutorearekin eta ikastetxeko zuzendariarekin hitz egin behar da, irudiak lantzeko zer prozedura duten jakiteko. Adibidez: adingabeen arduradunei eta irakasleei baimena eskatzea, bizkarrez grabatu edo argazkiak ateratzea edo aurpegiak era digitalean ezabatzea, aurpegiak ikusiko ez diren enkoadraketa bilatzea, edota argazkirik eta grabaziorik ez egitea. Zalantzarik izatekotan, hobe da irudirik ez argitaratzea.

Honako lege hauek arautzen dituzte herritar guztiek, baina batik bat adingabeek dituzten eskubideak ohorearekiko, intimitate pertsonalarekiko edo familia-intimitatearekiko, eta bere irudiarekiko.

- Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak, Konstituzioaren I. Tituluak arautzen dituenak (18. artikulua)
- 1/1982 Lege Organikoa, maiatzaren 5ekoa, ohorea, intimitate pertsonala, familia-intimitatea eta norberaren irudia errespetatua izateko eskubidearen babes zibilar buruzkoa.
- 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Legezko Babesari buruzkoa (4. artikulua)
- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babestekoa:

Argazkiak eta grabazioak erabiltzeko baimena eskatzeko agiri-eredu bat ere proposatuko dugu.

GRABATZEKO EDO ARGAZKIAK ATERATZEKO BAIMENA

..... jaun/andreak, NAN zenbakia
duenak eta ikaslearen guraso edo tutore legala denak

BAIMENA ematen dio praktiketako
irakasleari, eskolako jarduerak bideoz grabatu edo argazkietan jasotzen dituen
kasuetan, irudi horietan bere semea edo alaba ere ager dadin. Grabazio edo argazki
hauen helburu bakarra hezkuntza jarduerak erregistratzea izango da. Irudiok ez
dira inoiz publiko egingo, eta aipatutako erabilera baino ez zaie emango.

Sinatua:

12. ERANSKINA**PRESTAKUNTZA PROIEKTUA**

...../..... IKASTURTEA

AND./JN. (*Ikaslearen izen-abizenak*)

NAN

Ikaslea

AND./JN. (*Tutorearen izen-abizenak*)

Tutorea

AND./JN. (*Instruktorearen izen-abizenak*)Instruktorea etaren (*erakunde laguntzailea*) ordezkaria

UPV/EHUren eta erakundearen arteko hezkuntza lankidetzarako hitzarmenean ezarritakoaren arabera, alde biek honako informazio hau ematen dute:

- 1.- UPV/EHUK emandako ikasketak:.....
- 2.- Jarduerak egiteko lekua:.....
- 3.- Erakundeko instruktorea:
- 4.- Irakasle tutorea:
- 5.- Praktika Programaren Arduraduna (PPA) edo, hala dagokionean, tituluko praktiken arduraduna:.....

6.- Hezkuntza helburuak:

Ikasleak eskuratu beharreko oinarritzko gaitasunak, gaitasun generikoak, eta/edo zeharkako gaitasunak:

1.-

2.-

(...)

Ikasleak eskuratu beharreko gaitasun espezifikoak:

1.-

2.-

(...)

Ikaskuntza emaitzak:

- 1.-
2.-
(...)

7.- Egin beharreko jarduerak edo zereginak:

Egin beharreko jardueren edo zereginen deskribapena:

- 1.-
2.-
(...)

8.- Praktika programaren iraupena:(e)tik (e)ra (uuuu/hh/ee)

9.- Praktiken ordutegia:

10.- Orduen kopuru osoa:

11.- Sinatzaileen datuak hitzarmen honen helburu eskusiboetarako erabiliko dira soilik. Dokumentu hau sinatzeak baimena ematen du sinatu dutenen datuak lagatzeko eta erabiltzeko hitzarmenaren helburuetarako.

12.- Sinatzaileek konpromisoa hartzen dute konfidentzialtasuna bermatzeko, erakunde laguntzailearen barne informazioari dagokionez, eta sekretu profesionala gordetzeko. Beraz, ez dute hitzartutako praktikatik lor dezaketen daturik jakinaraziko edo inoren esku utziko, ez praktikak hasi aurretik, ez praktikak egin bitartean ezta amaitu ondoren ere.

13.- Nolanahi ere, aldean eskubideei eta betebeharrei dagokienez, Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak Arautzeko UPV/EHUko Arautegiak ezarritakoa bete beharko da.

14.- (Hala badagokio) Laguntza poltsa gutxira: €

Erakunde laguntzaileak ezarritako kopurua zuzenean ordainduko dio ikasleari, egokitzen jotzen dituen bitartekoen bidez eta dagozkion zerga betebeharrak bete beharko ditu.

Eta hau guztia sinatzen da,.....(e)n, 20.....(e)ko(a)ren (e)(a)n.

UPV/EHUko ikaslea
(Sinadura)

UPV/EHUko tutorea
(Sinadura eta zigilua)

Erakundeko instruktorea
(Sinadura eta zigilua)

Soilik laguntza poltsa badago

PPA edo, hala badagokio, tituluaren
praktiketako arduraduna

(Sinadura eta zigilua)

Erakundearen arduraduna

(Sinadura eta zigilua)